ANOETAKO
UDALA

# BANDOA

## SALBUESPENAK TRAKTOREAK, ATOIAK, ERDI-ATOIAK ETA MAKINERIA

2017ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren ordainketatik salbuesteko eskaera epea zabaltzen da.

**ESKAERA EPEA:** 2017ko otsailaren 15a arte, hau ere barne.

**AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.
- Udalarekiko dituen zerga eta tasa obligazioetan eguneratuta egotea.

**HURRENGO ESKAERAK:**
Aurreko urteetan ordainketatik salbuesteko eskaera egin eta onartua izan zitzaienek ez dute berriro ere eskaera egin beharko eta automatikoki aplikatuko zaie.

**MATRIKULA BERRIAK:** matrikula berria daukaten ibilgailuentzat BI HILABETEKO epea dago Trafiko Buruzagitzan alta ematen zaienetik hasita, indarrean den ekitaldirako salbuespena eskatzeko.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
Anoetako udaletxeko bulego orokorra
Herriko Plaza z.g.
20270 Anoeta

Anoeta, 2016-12-29
Alkatea